



## 2014 jarduera bilana 2015eko aitzinikusi jarduera programa

### EEPren hizkuntza politikaren kuadroa

- **Hizkuntza Politika Proiektua : « Hiztun osoak helburu. Haur eta gazteak lehentasun »**
  - EEPk eraman euskararen aldeko hizkuntza politika publikoaren dokumentu estrategikoa, 2006ko abenduaren 26an adostua
  - Hamabi erronka nagusi, hiru familiatan bilduak :
    - **Euskararen transmisioa :**
      - Familia bidezko transmisioa ;
      - Lehen haurtzaroaren harrera ;
      - Irakaskuntza.
    - **Euskararen erabilpena :**
      - Hedabideak ;
      - Aisialdiak ;
      - Argitalpena ;
      - Bizitza soziala ;
      - Toponimia.
    - **Zeharkako eremuak :**
      - Helduen euskalduntzea ;
      - Euskararen kalitatea ;
      - Ikerkuntza ;
      - Motibazioa.
- **2011-2016 Jokabide esparrua**
  - 2010ko urriaren 20an adostua, Hizkuntza Politika Proiektuaren lehentasunak eta obratzeko metodoa finkatzen ditu 2011-2016 urteentzat :
    - **norabide estrategiko bat : EEPren esku-hartzearen indartzea euskararen erabileraren eremuetan** (bizitza soziala, hedabideak, aisialdiak, argitalpena), une berean transmisio eremuetako esku-hartzea egonkortuz (lehen haurtzaroa, irakaskuntza, helduen euskalduntzea) ;
    - **hizkuntza politikaren obratzeko metodo bat : ekintza azpi-eremu koherenteen arabera esku-hartzea lehenetsi**, azpi-eremuaren errealitateak kontuan hartuz definitua izanen den estrategia berezitu batean oinarrituz ;
    - transmisio eta erabileraren eremuetan **lehentasunez landuko diren azpi-eremuen hautatzea** printzipio bikoitz baten arabera : **estrategia printzipioa eta errealitate printzipioa** ;

- EEPren lanetan, **subsidiariorotasun printzipioa sistematikoki obratzea**, hau da :
    - finantzabide arrunten mobilizazioa lehenestea ;
    - politika arruntetan hizkuntza politikaren integratzea ;
  - EEP eta Aholku Batzordearen artean etengabeko elkar aditzea plantan jartzea, obratu hizkuntza politikaren lantzeko eta jarraitzeko ;
  - EEPren ingeniari-tza baliabideen azkartze-ari lehen-tasuna ematea, eta barneko antolaketa Jokabide Esparru berriaren arabera egokitzea.
- Transmisio eta erabileraren eremuetan lanean hasteko 2011-2016 urteetako aitzinikusia den egutegia :
- **Euskararen erabileraren azpi-eremuak :**
    - bititza sozialean :
      - administrazioa, zerbitzu publikoak eta parapublikoak : 2011
      - garraioak : 2011-2012
      - osasun saila, merkataritza eta zerbitzuak : 2014-2016
    - aisialdian :
      - harrera kolektiboa : 2011-2013
      - heziketa kulturala eta artistikoa : 2011-2013
      - kirol heziketa, zerbitzuen kontsumoa : 2014-2016
    - hedabideetan :
      - telebista : 2011-2013
      - irratia : 2011-2013
      - prentsa idatzia, web hedabideak : 2014-2016
- argitalpenean :
    - liburuaren ekonomia : abiatu politikaren segitzea
    - irakurketa publikoa : 2011-2013
- **Euskararen transmisioaren azpi-eremuak :**
    - lehen haurtzaroaren harreran :
      - harrera kolektiboa : abiatu politikaren segitzea
      - familia harrera : 2011-2013
    - irakaskuntza :
      - irakaskuntza orokorra : abiatu politikaren segitzea
      - irakaskuntza teknologikoa eta profesionala : beharretatik abiatuz
    - familia bidezko transmisioan : gurasoen sentsibilizazio estrategia baten esperimentazioa Herri elkargo batean

## 2014ko jarduera bilana...

### 1/ Euskararen transmisioaren garatzea

#### • Irakaskuntza

- Hezkunde nazionala / Pirinio Atlantikoetako Departamendua hitzarmenaren jarraipen batzordeak 2013ko uztailaren 12an adostu 2013-2014 lan programaren obratzea Hezkunde nazionalarekin, sail ezberdinetan :
  - 1. atala. Euskarazko irakaskuntza eskaintzaren garatzea :
    - 1. mailako irakaskuntza :
      - Egingarritasun ikerketak : Larraineko eskola publikoan
      - Irekitzea Larraineko eskola publikoan
      - Euskaraz irakatsi nahi duten irakaskuntza girstiniko 6 irakasleen formakuntzaren abiatzea
      - Irakaskuntza publikoko 1. mailako eskoletan euskaraz irakasten ez duten irakasleen galdezkatzea, jakiteko zeintzuk euskara dakiten eta gogoia duten euskaraz irakasteko eta perspektiba honetan formatzeko :
        - Gutienik A2 maila duten 14 irakasle identifikaturik
        - Formakuntza plan proposamen baten lantzea
    - 2. atala. Euskarazko irakaskuntzen egituraketa kualitatiboa :
      - Sail elebidunetako ikasleen euskara mailaren ebaluaketa :
        - CM2 (CECRL Europako kuadroko A2 maila) : ebaluaketen antolatzea eskola publiko eta girstino guzietan
        - Kolegioko 5.ekoen ebaluaketak (CECRL Europako kuadroko B1 maila) : ebaluaketen antolatzea 3 sareetako kolegio guzietan
      - 1. mailako ikastetxe elebidunetan irakaskuntzen antolaketari buruzko orientabide dokumentuak :
        - Orientabide dokumentuaren hedatzea eskoletan
        - Publiko zabalari zuzendu dokumentuaren hedatzea hautetsiei eta gurasoei

## ...2015eko jarduera programa

### 1/ Euskararen transmisioaren garatzea

#### • Irakaskuntza

- EEPko 2014ko abenduaren 19ko Biltzar nagusiak adostu 2014-2015eko lan programaren obratzea Hezkunde nazionalarekin, sail ezberdinetan :
  - 1. atala. Euskarazko irakaskuntza eskaintzaren garatzea :
    - 1. mailako irakaskuntza :
      - Egingarritasun ikerketak : Ezpeize/Sarrikotapea, Angeluko Aristide Briand, Uztaritzeko Idekia, Bardoze, Biarritzeko Victor Duruy, Baionako Les Arènes eta La Citadelle eskola publikoetan
      - Euskaraz irakatsi nahi duten irakaskuntza publikoko 1. mailako irakasleen formakuntza plana definitzea eta abiatzea
      - Irakaskuntza girstinoko 2. mailako ikastetxeetan euskaraz irakasten ez duten irakasleen galdezkatzea, jakiteko zeintzuk euskara dakiten eta gogoia duten euskaraz irakasteko eta perspektiba honetan formatzeko
    - Irakaskuntza teknologikoa, profesionala eta laborantzakoa :
      - Ikastetxeekin hasi lanak jarraitzea sail elebidun berrien irekitze aukerak aztertze
  - 2. atala. Euskarazko irakaskuntzen egituraketa kualitatiboa :
    - Sail elebidunetako ikasleen euskara mailaren ebaluatzea :
      - CM2 (CECRL Europako kuadroko A2 maila) : ebaluaketen obratzea
      - Kolegioko 1. urratsa (5. klasea) : ebaluaketen obratzea
      - Kolegioko 2. urratsa (3. klasea) : Errektoretzak 3. hondarrean erdietsi beharreko konpetentzien eta araberako programen baieztatze eta ofizializatzeko lanen aktibatzea
    - Sail elebiduna segitu duten ikasleei araberako egiaztagiri baten

## 2014ko jarduera bilana...

- Sail elebiduna segitu duten ikasleei araberako egiaztagiri baten emateko dispositiboa :
  - sail elebidunetatik ateratzen diren eta diploma (baxoa edo CAP) ukan duten ikasleei ikasbide elebiduna segitu dutela ziurtatzen duen egiaztagiri errektoretzak ematea
- 1. mailako sail elebidunetan, esperimentazio pedagogikoen egitea euskarazko irakaskuntza oren kopurua emendatuz :
  - Esperimentazio eskaera egiteko protokoloaren hedatzea eskoletara
  - Esperimentazio proiektu bat duten irakasle taldeen laguntzea : Getaria, Larresoro eta Azkaineko eskola publikoetan eta Urruñako San Frantzisko Xabier eta Kanboko Santa Maria eskola giristinoetan
  - Esperimentazioen abiatzea Getariako eskola publikoan ama eskolako 1. eta 2. urtean, Larresoroko eskola publikoan 1., 2. eta 3. urtean
  - Esperimentazioen hedatzea ama eskolako 3. urtera Urruñako San Frantzisko Xabier eta Kanboko Santa Maria eskola giristinoetan
- Hezkunde nazionala/Seaska/EEP hitzarmena :
  - Hitzarmenaren obratzea
- 2. mailan euskaraz irakasten diren ikasgaiak zabalduz irakaskuntza elebidunaren azkartzea :
  - Etengabeko zaingoaren antolatzea euskara dakiten eta beren gaia euskaraz irakasteko prest diren 2. mailako irakasleak badirenez jakiteko, irakasle horien euskarazko mailaren ebaluatzea, formazio sesio batzuen antolatzea erregulariki (Errektoretzako tokiko hizkuntzen ikuskariak)
  - Egingarritasunaren aztertzea kolegioetako zuzendariekin
- Ikasmaterialaren ekoiztea :
  - Ikas/Hezkunde nazionala/EEPren arteko hitzarmen-marko berriaren prestatzea eta adostea, eta 2014ko irailaren 19an izenpetzea
  - Ikas pedagogia zentroaren funtzionamendua diruz laguntzea
  - 2014ko argitalpen programaren diruztatzea :
    - *Biribil*, maleta pedagogikoa, I. zikloko eri joko bilduma

## ...2015eko jarduera programa

- emateko dispositiboa : sail elebidunetatik ateratzen diren eta diploma (baxoa edo beste) ukan duten ikasleei ikasbide elebiduna segitu dutelako Errektoretzak egiaztagiri baten ematea
- 1. mailako ikastetxe elebidunetan irakaskuntzen antolaketa orientabide dokumentua :
  - Orientabide dokumentuaren hedatzea eskoletan
  - Publiko zabalari zuzendu dokumentua hautetsiei eta gurasoei hedatzea
- 1. mailako sail elebidunetan, esperimentazio pedagogikoen egitea euskarazko irakaskuntza oren kopurua emendatuz :
  - Esperimentazio eskaera egiteko protokoloaren hedatzea eskoletan
  - Esperimentazio proiektua duten irakasle lantaldeen laguntzea : egingarritasun inkestak Jatsu, Uztaritzeko Idekia, Donibane Lohitzuneko Urdazuri, Arbona eta Azkaineko eskola publikoetan eta Ezpeletako San Estebe, Senpereko San Josepe eta Uztaritzeko San Bixente eskola giristinoetan
- Hezkunde Nazionala/Seaska/EEP hitzarmena :
  - Bidean den hitzarmenaren obratzea
  - Hitzarmen berriaren prestatze lanen abiatzea
- 2. mailan euskaraz irakasten diren ikasgaiak zabalduz irakaskuntza elebidunaren azkartzea :
  - Etengabeko zaingoa euskara dakiten eta beren gaia euskaraz irakasteko prest diren 2. mailako irakasleak badirenez jakiteko, irakasle horien euskarazko mailaren ebaluatzea, formazio sesio batzuen antolatzea erregulariki (Errektoretzako tokiko hizkuntzen ikuskariak)
  - Egingarritasunaren aztertzea ikastetxeetako zuzendariekin
  - Egingarritasunaren arabera, 2015eko eskola sartzean euskarazko irakaskuntza abiatzea ikasgai berrietan
  - Baxoan euskaraz idazteko aukerak LBZra hedatzeko lan egitea
- Ikasmaterialaren ekoiztea :
  - Ikas pedagogia zentroaren funtzionamendua diruz laguntzea

## 2014ko jarduera bilana...

- batez, ustiapen pedagogiko aukerez eta KD batez osatua
- *Pintzel magikoa*, Flammarion argitaletxeko Père Castor sail klasikotik itzulia, batuaz eta xiberrotarrez
- *Eskuzorroa*, Flammarion argitaletxeko Père Castor sail klasiko bildumako *La moufle* albumaren itzulpena, batuaz eta xiberrotarrez
- *Sagutxo margutxo* : Les Ptits Bérets argitaletxeko *Musette souricette* albumaren itzulpena eta lotua zaion liburuxka pedagogikoaren egokitzea
- Nathan argitaletxeko Histoire 4<sup>ème</sup> saileko *Historia 4.a* eskuliburuaren itzulpena
- Nathan argitaletxeko Histoire 3<sup>ème</sup> saileko *Historia 3.a* eskuliburuaren itzulpena
- *Nerabeen galdeak*, INPEsek argitaratu *Questions d'Ados* liburuxkaren itzulpena
- *Euskara Metodoa 1.mailan*, euskara irakasteko metodoa lehen mailan : CP mailaren forman ematea
- *HaraMat CP*, Hatier argitaletxeko CAP MATHS saileko fitxategiaren berrargiltapena
- Ikas pedagogia zentroaren azkartzearen laguntzea : dokumentalista laguntzaile postuaren diruztatzea 2014 urterako
- Hezkunde nazionala, Ikas zentroa eta EEPren artean Ikas zentroaren izariaz eta egituratzeaz gogoeta orokorraren bururatzea, ekoizpen eta hedapen aktibitateak kontuan hartuz, dokumentazio zentroa barne
- Klasetik kanpoko euskararen erabilpenaren sustatzea :
  - Ikastetxeei zuzendu 2014-15 ikasturteko proiektu deialdiaren bideratzea, euskararen erabilera kurtsuetaz haratago sustatzeko :
    - 60.000 €ko fondo baten osatzea
    - Proiektu deialdiaren zabaltzea 2014ko ekainean
- Irakaskuntzari zuzendu EEPko Biltzar Nagusia 2014ko irailaren 19an, Bordeleko Akademiako Errektorearekin eta Pirinio Atlantikoetako Akademia Ikuskariarekin : bilana, proposamenak eta perspektibak

## ...2015eko jarduera programa

- 2015eko argitalpen programaren diruztatzea
- Klasetik kanpoko euskararen erabilpenaren sustatzea :
  - Proiektu deialdian parte hartu duten 73 ikastetxeek aurkeztu 125 proiektuen instrukzioa
  - 3 irakaskuntza sareen ordezkari eta aholkulari pedagogikoak biltzen dituen Batzorde teknikoak proiektuen aztertzea
  - EEPko Biltzar nagusiak erabakien hartzea (2014ko abenduaren 19an) : 71 ikastetxek aurkeztu 121 proiektu lagunduak
  - 2014-15 ikasturteko proiektu deialdiaren tratatzea eta hestea :
    - Proiektu ekarleek 2015eko irailaren 30ko helarazi beharreko justifikagiriaren aztertzea
    - Diru laguntzaren azken partearen ematea
    - 2014-15 ikasturteko proiektu deialdiaren bilanaren egitea
  - Dispositiboaren abiatzea 2015-16 ikasturtearentzat, erabakiaren arabera
- EEPko Biltzar nagusiaren prestatze lanak :
  - Sekzio elebidun berri batzuen irekitzeko eraman egingarritasun ikerketen bilana prestatzea
  - 2014-2015 ikasturteko jardueren bilana
  - 2015-2016 ikasturteko lan programa proposamena
- Hezkunde nazionala / EEPren arteko hitzarmen berri baten egitea euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren egituraketa eta garapenerako eramaten den politikaren obratzeari buruz :
  - Hitzarmen proposamen baten lantzea
  - EEPko Biltzar nagusian aurkeztea
  - Hitzarmenaren izenpetzea
- Eragileen diruz laguntzea EEP/EJ lankidetzarako fondoaren bitartez

## 2014ko jarduera bilana...

irakaskuntza arloan

- 2014-15eko lan programaren proposamena, EEPko 2014ko abenduaren 19ko Biltzar nagusiak adostu duena

- **Lehen hartzaroa : Lehen hartzaroaren harrera kolektiboa**

- Leha dispositiboaren arraberritzeko lanak : dispositiboa 2015eko martxoan bukatzen baita, haren arraberritzeko proposamenean diseinatzea
- Labelizatuak edota labelizatze bidean diren 20 hartzaindegien jarraipena :
  - o Labelizatuak diren 7 hartzaindegien segitzea
  - o Labelizatze bidean izendatuak izan diren 13 hartzaindegien laguntza plagentzen diruztatzea eta segipena
  - o Labelizatze eskaera bat egitekoa duten bi hartzaindegiren formakuntza planaren jarraipena eta diruztatzea
- Guraso gazteentzat, lehen hartzaroaren euskarazko harrera eskaintzari buruzko informazioaren hedapena « Pack 1 » dispositiboaren bitartez (ikus Familia transmisioari buruzko atala)
- Eragileen diruz laguntzea EEP/EJ fondo komunaren bitartez

- **Lehen hartzaroa : Lehen hartzaroaren familiako harrera**

- Etxe hartzainentzat Kontseilu nagusiak obratu euskarazko agirien dispositiboaren jarraipena

## ...2015eko jarduera programa

- **Lehen hartzaroa : Lehen hartzaroaren harrera kolektiboa**

- Leha dispositiboaren arraberritzeko lanak : solasak kudeatu, dispositiboa epe luze batentzat arraberritu ahal izateko
- Euskarazko hartzaindegien sarea hedatzen segitu, 4 hartzaindegi labelizatuz
- Labelizatuak edota labelizatze bidean diren hartzaindegien jarraipena :
  - o Labelizatuak diren hartzaindegien segitzea
  - o Labelizatze bidean izendatuak izan diren hartzaindegien laguntza plagentzen diruztatzea eta segipena
- Euskarazko Hartzainen Etxeentzat, Leha dispositiboaren baitan label batzuen sortzeko aukera aztertu
- Guraso gazteentzat, lehen hartzaroaren euskarazko euskarazko harrera eskaintzari buruzko informazioaren hedapena « Pack 1 » dispositiboaren bitartez (ikus Familia transmisioari buruzko atala)
- Eragileen diruz laguntzea EEP/EJ fondo komunaren bitartez

- **Lehen hartzaroa : Lehen hartzaroaren familiako harrera**

- Etxe hartzainen Kontseilu nagusia obratu euskarazko agirien dispositiboaren jarraipena

## 2014ko jarduera bilana...

### • Familia transmisioa

- Euskararen transmisioaz lurraldeko guraso berrien sentiberatzeko, EEP eta kolektibitateen arteko dispositibo partekatu baten obratzea :
  - « Pack 1 » haur sortu berrien gurasoei zuzendu dispositiboaren 1. fasearen obratzea :
    - EEPekin hitzarmenez lotu hiri eta herri elkargo guzei proposatzea
    - Ekoizpen partekatua, EEPk denen kondu eginik
    - 1.500 familiei igortzea, dispositiboarekin bat egin duten kolektibitateen lurraldeetan : Baxe Nafarroa, Hego Lapurdi, Errobi, Hazparne eta Xiberoko Herri elkargoak
    - Dispositiboaren berriztatze erabakiaren hartzea (EEPren 2014ko abenduaren 19ko BN)
  - « Pack 2 » eskolatzekotan diren haurren gurasoei zuzendu dispositiboaren 2. fasearen obratzea :
    - EEPekin hitzarmenez lotu hiri eta herri elkargo guzei proposatzea
    - Packaren definitzea : EEPk gidaturik, euskara teknikari-garatzailleekin elkarlanean
    - Ekoizpen partekatua, EEPk denen kondu eginik
    - 1.547 familiei igortzea, dispositiboarekin bat egin duten kolektibitateen lurraldeetan : Baxe Nafarroa, Hego Lapurdi, Errobi, Hazparne eta Xiberoko Herri elkargoak
    - Dispositiboaren berriztatze erabakiaren hartzea (EEPren 2014ko abenduaren 19ko BN)

## ...2015eko jarduera programa

### • Familia transmisioa

- Euskararen transmisioaz lurraldeko guraso berrien sentiberatzeko, EEP eta kolektibitateen arteko dispositibo partekatu baten obratzea :
  - « Pack 1 », haur sortu berrien gurasoei zuzendu dispositiboaren 1. fasearen obratzea :
    - EEPekin hitzarmenez lotu hiri eta herri elkargo guzei proposatzea
    - Ekoizpen partekatua, EEPk denen kondu eginik
    - EEPren partaide diren eta dispositiboarekin bat egiten duten kolektibitateen lurraldeetako familiei igortzea
    - Dispositiboaren berritzea hartu erabakiaren arabera
  - « Pack 2 », haurra eskolatzekotan duten gurasoei zuzendu dispositiboaren 2. fasearen obratzea :
    - EEPekin hitzarmenez lotu hiri eta herri elkargo guzei proposatzea
    - Ekoizpen partekatua, EEPk denen kondu eginik
    - EEPren partaide diren eta dispositiboarekin bat egiten duten kolektibitateen lurraldeetako familiei igortzea
    - Dispositiboaren berritzea hartu erabakiaren arabera
  - Hitzaldi ziklo baten antolatzea publiko zabalarentzat eta bereziki aitamen sentsibilizatzeko elebitasunari eta eskolatzeko elebidunari, Hezkunde nazionalarekin, 3 sareetako arduradunekin, buraso elkarteekin eta kolektibitateekin elkarlanean : EEPk gidaturik, antolakuntza euskara teknikari-garatzailleekin

## 2014ko jarduera bilana...

### 2/ Hizkuntza erabileraren garapena

- **Euskararen presentzia eta erabilera bizitza sozialean : Administrazioa, zerbitzu publikoak eta parapublikoak**

- « EEPko kideak eta haien menpeko erakundeak Euskararen presentzia eta erabilpena garatzearen alde lan egitera gomiatu eta lagundu » 1. neurriaren obratzea :
  - Hautetsien kontseilua/Garapen kontseilua :
    - Garapen kontseiluarekin izenpetu hitzarmenaren jarraipena
  - Departamendua : laguntza teknikoa, Kontseilu nagusiak onartu « Erakundean tokiko hizkuntzak sustatu » ekintza programako neurrien obratzeko
  - Eskualdea : laguntza teknikoa, 2011ko ekainean bozkatu « Okzitaniera eta Euskara Eskualdeko instituzioan sustatzeko 2011-2014 plan »eko neurrien obratzeko
  - Euskal kultura sustengatzen duen herri arteko sindikatua : euskararen erabilpena indartu egituraren ibilmoldea elebiduntzeko (gutunak, sindikatu batzorde eta biltzarretako euskarriak)
- « Herriak, Herri Elkargoak eta haien menpeko erakundeak euskararen presentzia eta erabilpena garatzearen alde lan egitera gomiatu eta lagundu, hizkuntza teknikarien sarearen bitartez » 2. neurriaren obratzea
  - Herriko Etxeekin eta Herri Elkargoekin lan egitea euskararen erabilera garatzeko hizkuntza teknikari-garatzailen sarearen bitartez : ik. *EEP/Tokiko aginteen arteko partaidetzen kariatara hizkuntza teknikari-garatzailen sareak burutu 2014 urteko jardueren bilduma dokumentua*
  - Euskararen erabilpenaren garapenerako herrien laguntza dispositiboa, 2012ko uztailaren 16ko EEPko AKK onartua, eta hobekuntza desmarta baten bitartez, Herriko Etxearen ibilmolde elebidun autonomia helburu duena :
    - Dispositiboaren esperimendazioa aitzina segitzea 7 herriko etxerekin, tokiko teknikari garatzaile bakoitzarekin lankidetzan :

## ...2015eko jarduera programa

### 2/ Hizkuntza erabileraren garapena

- **Euskararen presentzia eta erabilera bizitza sozialean : Administrazioa, zerbitzu publikoak eta parapublikoak**

- « EEPko kideak eta haien menpeko erakundeak Euskararen presentzia eta erabilpena garatzearen alde lan egitera gomiatu eta lagundu » 1. neurriaren obratzea :
  - Hautetsien kontseilua/Garapen kontseilua :
    - Garapen kontseilua : hitzarmenaren jarraipena
    - Hautetsien kontseilua :
      - egingarriak diren neurrien aztertzen laguntzea
      - Hitzarmena izenpetzea
      - Obratzerako laguntza teknikoa
  - Departamendua : laguntza teknikoa, Kontseilu nagusiak onartu « Erakundean tokiko hizkuntzak sustatu » ekintza programako neurrien obratzeko
  - Eskualdea :
    - 2011ko ekainean bozkatu « Okzitaniera eta Euskara Eskualdeko instituzioan sustatzeko 2011-2014 plan »eko euskarari buruzko neurrien obratzearen bilana
    - Laguntza teknikoa, plan indartu berri baten plantan ezartzean
  - Estatua : erabakiaren araberako laguntza
- « Herriak, Herri Elkargoak eta haien menpeko erakundeak euskararen presentzia eta erabilpena garatzearen alde lan egitera gomiatu eta lagundu, hizkuntza teknikarien sarearen bitartez » 2. neurriaren obratzea
  - Herriko Etxeekin eta Herri Elkargoekin lan egitea euskararen erabilera garatzeko hizkuntza teknikari-garatzailen sarearen bitartez
  - Euskararen erabilpenaren garapenerako herrien laguntza dispositiboa :
    - Dispositiboaren esperimendazioa aitzina segitzea, tokiko teknikari garatzaile bakoitzarekin lankidetzan :
      - Onartu hobekuntza kontratuen segipena (Hazparne, Maule,



## 2014ko jarduera bilana...

- 2013ko abenduan onartu hobekuntza kontratuen segipena (Hazparne, Maule, Itsasu) :
  - o Jarraipen batzordeak plantan ezartzea eta parte hartzea
  - o 2015eko bide orrien definitzea eta onartzea
- Hiriburu eta Hendaiaiko Herriko Etxeen hobekuntza kontratuen definitzea :
  - o Zerbitzuen diagnostikoa
  - o Hobekuntza kontratua definitzea Herriko Etxearekin lankidetzan
  - o Herriko kontseiluek, Herri Elkargoetako kontseiluek eta EEPko 2014ko abenduaren 19ko Biltzar nagusiak onartzea
- Senpere eta Donibane Garaziko hobekuntza kontratuen prestaketa lanak
  - Esperimentazioa zabaltzeko 4 herriko etxerekin harremana lotu da : Uztaritze, Kanbo, Baigorri eta Atharratze
- o Herriko etxeen esku uzteko euskarri elebidunak egokitzeko eta/edo ekoizteko elkarren arteko lana aitzina segitzea :
  - Dokumentu eta euskarri modelo elebidunen bilketa, lehen hobekuntza kontratuen kariatara : euskararen erabilpena bultzatzeko estrategikoak diren zerbitzuen euskarriak, hizkuntza baieztapenak (areto alokatze hitzarmenak, nortasun agirien galdea helduentzat eta adingabekoentzat, pasaporte biometrikoen eskaera, kirol gelen barne araudiak, etab.)
  - Horiek teknikari-garazzaileen extranet sareko tresnan ezartzea
- o EEPren partaide diren elkargoei zuzendu proiektu deialdi bat plantan ezarri da, horren helburua izaki elkargoei eraman proiektuen diruztatze moldeak egituratzea, euskararen erabilpenaren garapena sustengatzeko herri edo herri elkargo mailan :
  - Proiektu deialdia abiaraztea
  - 6 elkargok aurkeztu 14 proiektuak aztertzea
  - 2014ko martxoaren 20ko EEPko Administrazio kontseiluak diru laguntza esleipenak onartzea : diru laguntza 11 proiektuei
- « Euskararen presentzia eta erabileraren garatzearen alde lan egitera eragile nagusiak, publikoak, parapublikoak edo publikotasunarekin zer

## ...2015eko jarduera programa

- Itsasu, Hiriburu, Hendaia) :
  - o Jarraipen batzordeak plantan ezartzea eta parte hartzea
  - o 2015eko bide orrien obratzearen segitzea, 2016ko bide orrien definitzea eta adostea
- Senpere eta Donibane Garaziko hobekuntza kontratuen definitzea :
  - o Hobekuntza kontratua definitzea Herriko Etxearekin lankidetzan
  - o Herriko kontseiluek, Herri Elkargoetako kontseiluek eta EEPko Biltzar nagusiak hitzarmenak onartzea
- 4 herri berrien hobekuntza kontratuak definitzea : Uztaritze, Kanbo, Baigorri eta Atharratze :
  - o Zerbitzuen diagnostikoa
  - o Hobekuntza kontratua definitzea Herriko Etxearekin lankidetzan
  - o Herriko Etxeek, Herri Elkargoei eta EEPko Biltzar Nagusiak hitzarmenak onartzea
  - Esperimentazioa bururatzean :
    - Dispositiboa zehaztea eta egokitzea beharrez
    - Proposamena zabaltzea erabakien arabera
- o Herriko etxeen esku uzteko euskarri elebidunak egokitzeko eta/edo ekoizteko elkarren arteko lana aitzina eramatea
- « Euskararen presentzia eta erabileraren garatzearen alde lan egitera eragile nagusiak, publikoak, parapublikoak edo publikotasunarekin zer ikusirik dutenak gonbidatu eta lagundu, zuzenean eta hizkuntza teknikarien sarearen bitartez » 3. neurriaren obratzea :
  - o Izenpetu hitzarmenen jarraipena eta obratzerako laguntza
  - o Hitzarmen baten izenpetzeari buruz abiatu lanak aitzina eramatea
  - o EEPk eragile nagusiei buruz abiatzen dituen desmarta zuzenak aitzina eramatea, eta laguntzea erabakien arabera
  - o Euskara teknikari-garazzaileen ekintza haien lurraldeetan begiztatu eragile estrategikoei buruz, EEPekin lankidetzan (eragilea gidaritza batzordeetan hautatzea)
- EEP/Kolektibitateen arteko lankidetzan etengabeko jarraipena eta euskara teknikari-garazzaileek osatu sarearen koordinazioa :

## 2014ko jarduera bilana...

ikusirik dutenak gonbidatu eta lagundu, zuzenean eta hizkuntza teknikarien sarearen bitartez » 3. neurriaren obratzea :

- Izenpetu hitzarmenen jarraipena eta obratzerako laguntza :
  - Pirinio Atlantikoetako Laborantza Ganbera :
    - Formakuntza planaren plantan ezartzea eta abiatzea
    - Lehen urteko bide orriaren prestaketa (eragilearekin baieztatzekoa)
  - Bil Ta Garbi sindikatua : obratzearen jarraipena eta 2. urtearen bilana
  - Baionako Euskal Museoa : obratzearen jarraipena, 1. urtearen bilana egitekoa
  - Garapen kontseilua : obratzearen jarraipena, 1. urtearen bilanaren prestaketa
- Hitzarmen berrien izenpetzea :
  - Euskal Kostaldeko Ospitalea
- Hitzarmen bat izenpetu aitzineko lan tekniko (gidaritza batzorde bilkuretan parte hartzea, diagnostikoak, proposamen teknikoak) :
  - CAPIO klinikak : neurri andana bat plantan ezartzea, hitzarmena izenpetu aitzin
  - Baiona Euskal Herriko MIG
- Hitzarmenik gabeko laguntza tekniko :
  - Baionako U Express
  - Uztaritzeko Super U
- Eragileekin biltzea eta harremanak :
  - IKEA eta Inter IKEA : euskararen txertatzeko engaiamendua hirueleduna izanen den norabide seinalektan
  - Posta
  - France 3
  - Euskal Herriko Pilota Liga
- EEP/Kolektibitateen arteko lankidetzen etengabeko jarraipena eta euskara teknikari-garatazaileek osatu sarearen koordinazioa :
  - Etengabeko laguntza tekniko hizkuntza teknikari-garatazaileei
  - Gidaritza batzorde guzietan parte hartzea
  - Euskara teknikari garatazaileen koordinazio eta lan bilkurak antolatzea
  - Hitzarmenen bilanak eta arraberritzeak :

## ...2015eko jarduera programa

- Etengabeko laguntza tekniko hizkuntza teknikari-garatazaileei
- Gidaritza batzorde guzietan parte hartzea
- Euskara teknikari garatazaileen koordinazio eta lan bilkurak antolatzea
- EEPekin hitzarmenez lotuak diren elkargoen lehendakari eta auzapez guziekin lotura bilkuren antolatzea
- Bururatzten diren EEP / elkargoen arteko hitzarmenak (bost 2015ean) :
  - Hitzarmenen bilan partekatua
  - Hitzarmen proposamen baten prestaketa
  - Erabakiaren arabera arraberritzea

## 2014ko jarduera bilana...

- EEP eta Biarritzeko hiriaren arteko hitzarmena :
    - 2011-2014 hitzarmenaren bilan partekatua
    - Gehigarrien adostea hitzarmenaren epea 2015eko apirila arte luzatuz
  - EEP eta Xiberoa Herri Elkargoaren arteko hitzarmena :
    - Hitzarmena arraberritzea 3 urterako euskara garatzaile lan postu erdi baten sortzearekin
  - EEP eta Hego Lapurdi hirigunearen arteko hitzarmena :
    - 2011-2014 hitzarmenaren bilan partekatua
- 
- **Euskararen presentzia eta erabilpena bizitza sozialean : enpresak, merkatariak eta zerbitzuak**
    - Euskal Moneta :
      - Eusko sarean diren saltegiek afixaketa elebidun dezaten laguntzeko urte beteko hitzarmena
      - Hitzarmenaren obratzea :
        - 64 saltegiren afixaketa datuak biltzea, itzultzaile profesional batek itzultzea, saltegiei igortzea
        - Datu base bat elikatzea : 1.900 sarrera berri 2014ko datuekin, 3.900 sarrera 2013ko itzulpenekin
    - Euskararen erabilpenaren garatzea enpresa, merkatari eta zerbitzuetan, hizkuntza teknikari-garatzailleekin elkarlanean :
      - Xiberoako okindegi eta gozotegiak euskararen presentzia indartzen laguntzeko dispositibo bat zehaztea tokiko euskara teknikari-garatzaillearekin batean
      - Euskara teknikari-garatzailleekin supermerkatuenganako desmartzak abiatzea gomitatze eta laguntzeko euskararen erabilpena garatzen : Itsasuko Intermarché, Hiriburuko Carrefour Market
    - Euskararen presentzia eta erabilpena garatzea ikastegi elebidunetan :
      - Esperimentazioa 2. mailako ikastetxe katoliko lagin batekin, DDEC, Herri Elkargo eta Ikastetxeburuekin batean :
        - Bi lankidetzak hitzarmen apailatzea Donibane-Lohizuneko Dona

## ...2015eko jarduera programa

- **Euskararen presentzia eta erabilpena bizitza sozialean : enpresak, merkatariak eta zerbitzuak**
  - Euskal Moneta :
    - Itzuli datuak EEPren euskara web atarian denen esku ezartzea
    - 2013. eta 2014. urteetan eraman ekintzen bilan partekatua egitea
    - Partaidetza iraunkorra eraikitzea, saltegiak laguntzeko euskararen erabilpena garatzen, horretarako nahia duten herri ekargoekin
  - Euskararen erabilpenaren garatzea enpresa, merkatari eta zerbitzuetan, hizkuntza teknikari-garatzailleekin elkarlanean :
    - Xiberoako Herri Alkargoko teknikari-garatzaillea laguntzea okindegi eta gozotegiei buruzko dispositibo obratzen (gutuna, saltzailekilako bilkurak, diagnostikoak, proposamenak apailatzea, tresnak ekoiztea, etab.)
    - Dispositiboaren bilana eta zabaltzea horretarako nahia duten lurraldeetan
    - Tresnak sortzea saltzaileak laguntzeko euskararen presentzia garatzen
    - Esperimentazioaren aitzina eramatea, lankide diren elkargoekin batean
  - Euskararen presentzia eta erabilpena garatzea ikastegi elebidunetan :
    - Esperimentazioa 2. mailako ikastetxe katoliko lagin batekin, DDEC, Udal Elkargo eta Ikastetxeburuekin batean :
      - Onartu diren bi hitzarmen jarraipen batzordeak abiaraztea,

## 2014ko jarduera bilana...

- Maria kolegioarekin eta Uztaritzeko San Josepe lizeoarekin
- EEPko Biltzar nagusiak onartzea 2014ko abenduaren 19an

### • Aisialdiak : Aterberik gabeko aisialdi zentroak (AGAZ)

- AGAZetan euskarazko harrera egituratzeko politika publikaren definizioa :
  - EEPren 2014ko martxoaren 20eko Administrazio kontseiluak onartzea
- Eragileen diruz laguntzea EEP/EJ lankidetzarako fondoaren bitartez

### • Aisialdiak : Heziketa artistikoa eta kulturala

- HN/KN eragile kulturaren dispositiboaren eraketan parte hartzea
- Euskaraz proposatu euskal dantza ibilbidearen eraketan parte hartzea (HN/KO/EKE/IDB)
- Eragileen diruz laguntzea EEP/EJ lankidetzarako fondoaren bitartez

### • Hedabideak

- ETBren hedapen numerikoa :
  - EKSHSren laguntzea finantzamenduen galdatzeko kolektibitateei
  - Jarraipen administratibo eta teknikoa
- Eragileak egituratzen laguntzea :
  - Euskal Irratiak : Euskal Irratien sarearen mutualizatzen eta honen barne antolaketa lanen laguntzen jarraitzea, burutu DLA (Dispositif Local d'Accompagnement) azterketaren emaitzetan

## ...2015eko jarduera programa

- 2015eko bide orriak onartzea
- Largenté kolegio-lizeoa lagundu ikastegiburuak galdatu ondoren
- DDECekin lana lotura liburuxka elebiduna egiteko
- Esperimentazioaren bilana

### • Aisialdiak : Aterberik gabeko aisialdi zentroak (AGAZ)

- AGAZetan euskarazko harrera garatzeko eta egituratzeko politika baten obratzearen abiatzea :
  - Obratzearen abiatzea : egitura bolondresekin esperimentazioa
- Eragileen diruz laguntzea EEP/EJ lankidetzarako fondoaren bitartez

### • Aisialdiak : Heziketa artistikoa eta kulturala

- Euskarazko eskaintza koherentzian jarri eta integratu indarrean diren dispositibo eta politikekin
- Eragileen diruz laguntzea EEP/EJ lankidetzarako fondoaren bitartez

### • Hedabideak

- ETBren hedapen numerikoa :
  - EKSHSren laguntzea finantzamenduen galdatzeko kolektibitateei
  - Jarraipen administratiboa eta teknikoa
- Eragileak egituratzen laguntzea :
  - Eragileen laguntzea, egituratzen laguntzeko lanak jarraituz
  - ADEPFO formakuntzaren biderapenaren jarraitzea

## 2014ko jarduera bilana...

oinarrituz, eta beste euskarazko hedabideekin abiatu gogoetak kontuan hartuz

- Herria : informazioa hedatzeko baliabideak eta lanerako tresnaren egokitzea helburutzat hartzen duen gogoeta baten jarraitzea eragilearekin, batez ere web guneari dagokionez, eta hau beste euskarazko hedabideekin abiatu gogoetak kontuan hartuz
- Euskal Hedabideak : ADEPFO (Association de Développement des Pyrénées par la Formation) formakuntza baten definitzen eta plantan jartzen laguntzea, Iparraldeko 5 euskal hedabiderentzat balioko lukeen publizitate konpainia baten sortzeko eta hauen arteko lankidetzaren bultzatzeko helburuekin

- Eragileen diruz laguntzea EEP/EJ lankidetzarako fondoaren bitartez

### • Argitalpena : Liburuaren ekonomia

- Eragileen diruz laguntzea EEP/EJ lankidetzarako fondoaren bitartez :
  - Euskarazko euskarri idatzien ekoizpenaren laguntzea : 22 proiektu 2014an (10 proiektu 2013an)
  - Merkaturatze tresnak ekoizteko argitaratzaileen laguntzea : 7 proiektu 2014an (4 proiektu 2013an)
  - Liburua eta idatziari buruz, eskolan edota eskolaz kanpo proposatu tailerren obratzeko eragileen laguntzea : 3 proiektu 2014an (2 proiektu 2013an)
- Liburuaren ekonomiaren egoeraz eta 2006 urteaz geroz EEPk eraman duen politikaz bilan partekatuaren bukatzea, euskarazko liburuaren ekonomian diharduten eragileekin batean, eta proiektu deialdian argitalpenari berezitua zaion araudiaren egokitzea

### • Argitalpena : Irakurketa publikoa

- Euskarazko argitalpen euskarrien erosteko laguntza dispositiboa :
  - Dispositiboaren obratzea : 21.000 €ko dirutza, 43 eragile lagunduak

## ...2015eko jarduera programa

- Eragileen diruz laguntzea EEP/EJ lankidetzarako fondoaren bitartez

### • Argitalpena : Liburuaren ekonomia

- Eragileen diruz laguntzea EEP/EJ lankidetzarako fondoaren bitartez :
  - Euskarazko euskarri idatzien ekoizpenaren laguntzea
  - Merkaturatze tresnak ekoizteko argitaratzaileen laguntzea
  - Liburua eta idatziari buruz, eskolan edota eskolaz kanpo proposatu tailerren obratzeko eragileen laguntzea
- Liburuaren ekonomiaren alorrean, EEPren lehentasunen eta bide orriaren arraberritzea

### • Argitalpena : Irakurketa publikoa

- Euskarazko argitalpen euskarrien erosteko laguntza dispositiboa :
  - 2015ko dispositiboaren definitzea
  - Dispositiboaren obratzea

## 2014ko jarduera bilana...

- Ikas zentroaren aholkularitza funtzioaren martxan ezartzea (4.000 €)
- Irakurketa publikoko sarean euskararen garatzeko xedez, politika baten definitzea eta onartzea, arlo horretan diharduten aktore eta instituzio guzietan partaidetzan (BDPA, DRAC, Bilketa eta EKE) : EEPren parte hartzea beste parte hartzaileenarekin osagarritasunean jartzea (euskarazko fondoan osaketan laguntzea, irakurketa publikoko ekipamenduetan euskararen erabilpenaren garatzea)

### 3/ Laguntzako edo zeharkako funtzioak eta dispositiboak

#### • Helduen euskalduntzea

- Langileen euskarazko formakuntza profesionalerako laguntza :
  - Eremu publikoan :
    - CNFPTrekin, agente publikoen euskarazko formakuntza profesionalerako partaidetza :
      - Kolektibitateekin partaidetzan, hiru formakuntza taldeen esperimazioaren ebaluazioaren burutzea :
        - Agenteak enplegatzen dituzten kolektibitateek eta agenteek berek bete galdetegiaren bidezko ebaluazioa
        - CNFPTarekilako partaidetzaren eraberritzea eta talde guzietan orokortzeko eskaera partekatua
      - CNFPTrekin bilkura teknikoak :
        - Ebaluazioaren partekatzea
        - Partaidetza, formakuntzan diren agente eta talde guzietan zabalduko proposamena, CNFPT/Kolektibitate/EEPk kofinantzurik
      - Agente publikoen formakuntza planak, CNFPTrekilako esperimazioetatik at :
        - Formakuntza planen muntatzeko laguntza teknikoak
        - Xiberoa, Errobi, Hazparne, Amikuze, Iholdi-Oztibarre, Garazi-Baigorri Herri elkargoen eta Hego Lapurdiko Hirigunearen diruz

## ...2015eko jarduera programa

- Irakurketa publikoko sarean euskararen garatzeko xedez onartu politikaren obratzea, arlo horretan diharduten aktore eta instituzio guzietan partaidetzan (BDPA, DRAC, Bilketa eta EKE) : EEPren esku hartzea beste parte hartzaileenarekin osagarritasunean jartzea (euskarazko fondoan osaketan laguntzea, irakurketa publikoko ekipamenduetan euskararen erabilpenaren garatzea)

### 3/ Laguntzako edo zeharkako funtzioak eta dispositiboak

#### • Helduen euskalduntzea

- Langileen euskarazko formakuntza profesionalerako laguntza :
  - Eremu publikoan :
    - CNFPTrekin, agente publikoen euskarazko formakuntza profesionalerako partaidetza :
      - CNFPTrekin negoziatzea, formakuntzan diren agente eta talde guzietan zabaldu partaidetza baten plantatzeko, CNFPT/Kolektibitate/EEPk kofinantzurik
      - Partaidetzen modalitateen definitzea eta formalizatzea
    - Lehen maila publikoko irakasleei zuzendu formakuntza planaren lantzea
    - Enplegu galdegileei zuzendu formakuntza experimental baten muntatzea, Akitania eskualdearekin partaidetzan
  - Eremu parapubliko edo izaera publikodunak : langileen euskarazko formakuntza profesionalaren martxan ezartzeko laguntza teknikoak
- Norbanako helduen euskarazko formakuntzaren sustatzea :
  - AEKrekin eraman lanaren segipena, norbanakoen euskalduntze eremuaren egituratzeko gisan :
    - Helduen euskarazko formakuntzaren egituratze moldeez definitze partekatua

## 2014ko jarduera bilana...

- laguntzea
  - o Eremu parapubliko edo izaera publikodunak :
    - Langileen euskarazko formakuntza profesionalaren martxan ezartzeko laguntza teknikoa : eskola pribatuetako irakasle eta ASEMAk, Bil Ta Garbi sindikatua, Euskal Herriko Garapen Kontseilua, Pirinio Atlantikoetako Laborantza Ganbera...
    - Formakuntza profesionalaren zuzenbide arrunteko dispositiboaren mobilizatzea
  - Norbanako helduen euskarazko formakuntzaren sustatzea :
    - o AEKrekin eraman lanaren segipena, norbanakoen euskalduntze eremuaren egituratzeko gisan :
      - Iker ikerketa zentroarekin partaidetzan, helduen euskalduntze prozesuaz den ikerketa kualitatiboaren partiaraztea
      - Existitzen diren esku hartzeen eta dispositiboaren azterketaren bururatzea :
        - Euskarazko formakuntzaren sustengatzeko dispositiboak Euskal Autonomia Erkidegoan
        - Bertako hizkuntzen sustengatzeko dispositiboak Britainian
    - o Ikaslearentzako diru-laguntza esperimentalak Xiberoa eta Errobi herri elkargoetan :
      - Dispositibo esperimentaleko ikasleen diruz laguntzen segitzea
      - 2010-2013 urteen bilana
  - Eragileen diruz laguntzea EEP/EJ lankidetzarako fondoaren bitartez
  - **Hizkuntza gaitasun egiaztatze dispositiboak**
    - C1 mailako egiaztatze frogan urteroko bi deialdien antolaketa :
      - o Maiatz-ekaineko deialdia : 74 kandidatu, 49k gainditua
      - o Urriko deialdia : 32 kandidatu, 13k gainditua
    - Hizkuntza egiaztapen dispositiboaren egituraketa :
      - o Unibertsitateekin partaidetza :
        - Bordeaux Montaigne eta Pau eta Aturrialdeko Unibertsitatekilako hitzarmenaren bi urterako eraberritzea

## ...2015eko jarduera programa

- o Ikaslearentzako diru-laguntza esperimentalak Xiberoa eta Errobi herri elkargoetan :
    - Dispositibo esperimentaleko ikasleen diruz laguntzen segitzea
  - Eragileen diruz laguntzea EEP/EJ lankidetzarako fondoaren bitartez
- **Hizkuntza gaitasun egiaztatze dispositiboak**
    - C1 mailako agiriaren eskuratzeko urteroko bi azterketa deialdi baten antolaketa
    - Hizkuntza egiaztapen dispositiboaren egituraketa :
      - o Bordeaux Montaigne eta Pau eta Aturrialdeko Unibertsitatekilako hitzarmenaren ebaluazioa eta partaidetzaren eraberritze baldintzen definitzea
      - o B1 mailako agiriaren egonkortzea :

## 2014ko jarduera bilana...

- B1 mailako agiriaren sortzea :
  - 2013ko esperimazioaren jarraian, B1 mailako bi azterketa-saio esperimentalen antolatzea, epaimahaikideak formatzeko eta zuzenketa irizpideak bateratzeko
  - Bilduma eta B1 mailako azterketaren iraganmoldeen finkatzea 2015erako : udaberriko deialdian azterketa saio bat publikoari zabaltzea, C1eko azterketaren egun beretan
- Euskarazko agiriak Zertifikazio Profesionalen Batzorde Nationalak sortzeko duen inbentarioan sartzeko urraspideen abiatzea

### • Hizkuntza ekoizpen eta baieztapenak

- Hizkuntza baieztapen funtzioaren egituratzea :
  - Hizkuntza baieztapen lanen segitzea eta garatzea, eragile publikoen eta parapublikoen eskaerei erantzuteko, horretarako dei eginez :
    - Pertsona aditu zenbaiti itzulpen lanen baieztatzeko
    - Euskaltzaindiari toponimoen baieztatzeko
- Teknikari-garatzailen itzulpen lanen laguntzea :
  - Toponimiari buruzko bigarren formakuntza baten antolaketan Euskaltzaindiarekin, euskara teknikari-garatzailentzat
  - Itzulpen memorien kudeaketa eta glosategien baliatzeko formakuntza baten antolatzea
  - Itzuli diren dokumentu nagusien bilketaren jarraipena, itzulpen-memoria nagusi eta partekatuen sortzeko
  - EEP eta teknikari-garatzailen itzulpen eta baieztapen zerbitzuak egituratzeko eta koordinatzeko (Itzulpen Memorien erabileraren sistematizatzea, hizkuntzaren estandarizatzearen laguntzea, kudeaketa erraztea eta razionalizatzea, estatistika eta adierazleen jarraipen lanak optimizatzea), beharrezkoak diren tresnak aztertzea, eta EEP eta teknikariak dituzten lurraldeen ekipatzeko proposamenak egitea
- Bizitza sozialeko alorrean EEPren partaide direnen itzulpen lanen laguntzea : Kontseilu nagusia, Departamenduko artxibategia, Eskualde kontseilua, Bilketa, Capio taldea, Super U, Euskal Moneta, Euskal Museoa, Laborantza ganbera, Merkatal eta industria ganbera

## ...2015eko jarduera programa

- B1 mailako agiriaren zuzentzaileen formatzea
- Publiko zabalarari zabaltzea lehen azterketa-saioaren bilduma
- Euskarazko gaitasun agiriak, lanbidearteko eskualdeko eta Frantzia mailako zerrendetan sarraraztea segurtatzeko urratsen ematea, Formakuntza kontu pertsonalerako (CPF) finantzabideen irekitzeko, baita Zertifikazio Profesionalen Batzorde Nationalaren inbentarioan sartzeko ere

### • Hizkuntza ekoizpen eta baieztapenak

- Hizkuntza baieztapen funtzioaren egituratzea :
  - Hizkuntza baieztapen lanen jarraitzea, ondokoetan oinarraituz :
    - Pertsona adituak itzulpen lanen baieztatzeko
    - Euskaltzaindia, toponimoen baieztatzeko
  - Euskaltzaindiarekin, lurraldetik heldu diren toponimia proiektuen azterketa eta jarraipena, bereziki Hazparneko lurraldeko proiektuak
- Teknikari-garatzailen itzulpen lanen laguntzea :
  - Itzuli diren dokumentu nagusien bilketaren jarraipena
  - Itzulpen-memoria partekatuen sortzea
  - Hizkuntzaren kalitatearen bermatzeko, tresna partekatuak sarean ezartzea, itzulpen eta hizkuntza baieztapen dispositiboak egituratuz eta koordinatuz, EEP eta euskara teknikari-garatzailen artean
  - Itzulpen-memorien eta beste tresna partekatuen erabiltzeko formakuntzen antolatzea
- Bizitza sozialeko alorrean EEPren partaide direnen itzulpen lanen laguntzea
- Hizkuntza baliabideen sortzea :
  - EEPren webgunean sortzea :
    - Elkargo publikoek deskargatu ahal izango dituzten ereduak dokumentuen biltegitratzeko gune bat
    - Merkatu eta ostalaritzako itzulpen, termino eta erranmoldeen



## 2014ko jarduera bilana...

- Hizkuntza baliabideen sortzea :
  - o EEPko webgunean ondoko diseinatze lanen abiatzea :
    - Elkargo publikoek deskargatu ahal izango dituzten ereduzko dokumentuen biltegitratzeko gune bat
    - Merkatu eta ostalaritzako itzulpen, termino eta erranmoldeen biltegitratzeko gune bat, merkatarien zerbitzuko, Euskal Moneta elkartearekin den partaidetza lanean oinarritua

### • Hizkuntza politikari buruzko mugaz gaindiko lankidetzak

- EEP/Euskal Autonomia Erkidegoko Eusko Jaurlaritzaren artean izenpetu urteko hitzarmenaren berritzea : 2011-2016 Hitzarmen-markoari lotzen den 2014ko eranskinaren izenpetzea 2014ko apirilaren 1ean
- Iparraldeko eragile pribatuei zuzendu diru-laguntzen esleitzeko antolatu dispositiboaren bideratzea (eragile jakinak hitzarmenez lotzea eta hizkuntza jarduera proiektu deialdia) :
  - o 2014erako lankidetzarako fondo baten eratzea, alde bien ekarpenez, guztira 1.600.000 €koa, EEPk 1.200.000 € jarriz eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 400.000 €, bi multzotan antolatua :
